

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA**

Zuzeneko Zergen Zerbitzua - Errenta eta Ondare Atala

Administrazio egintzak jakinaraztea: PFEZ

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoaren ildotik, aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie agertu daitezen eta zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo beren ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Bulego Kudeatzailean (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) agertzeko, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaie. Interesdunak edo haien ordezkariak astelehenetik ostiralera 08:15etik 14:30era aurkeztu ahal izango dira.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2016ko urriaren 5a

Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren burua
SOCORRO DE ECHAVE-SUSTAETA Y PÁRAMO

IFZ	IZENA	PROZEDURA	EKITALDIA
72774966E	Lerena Alonso Mariano	Errenta agiriak eskatzea	2014